



2024KO URRIAREN 31KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko urriaren hogeita hamaikan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josebxe Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Puntu honi dagokion dokumentazioa ez da aurkeztu, beraz 2024ko irailaren 26ko eta urriaren 17ko aktak hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko dira bere onarpenerako.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 6 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEAREN ONARPENA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedienteak irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedienteak aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.



Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 6 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
III	Finantza gastuak	150,00 €
IV	Transferentzia arruntak	1.891,21 €
VI	Inbertsio errealak	41.563,46 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		43.604,67 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	43.604,67 €
GUZTIRA		43.604,67 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IV.- BERME ITZULKETA (BEIZAMA S.A., ITURGAITZAGA 4.E.L. BESTERENTZEA).-

2024ko martxoaren 21ean, Osoko Bilkurak Lazkaoko P.R.4 Iturgaitzaga lurzati erai-kigarria besterentzeko kontratua BEIZAMA S.A. enpresari esleitu zion, eta beronek lizitazioan parte hartu ahal izateko 17.837,82 €-ko behin-behineko bermea aurkeztu zuen banku-transferentzia bidez. Ondoren, lehen sailkatua izanik eta kontratua esleitu ahal izateko, behin-betiko % 5eko bermea osatu ahal izateko, beste 15.167,18 €-ko bermea aurkeztu zuen, hau ere banku-transferentzia bidez.

Azkenik, lurzatiaren eskualdaketa eskritura publikoan formalizatu aurretik beste 33.005 €-ko bermea aurkeztu behar zuen BEIZAMA S.A.-k. Horren ordez, 66.010 €-ko abala aurkeztu zuen Udalean, eta aurretik aurkeztutako 17.837,82 € eta 15.167,18 €-ko bermeak itzultzeko eskaera egin zuen 2024ko irailaren 18an, abal honek aurreko bermeak ordezkatzeko zituelarik.



Honen aurrean, eta Udal Kontu-hartzaileak burutu duen txostenean oinarriturik, Osoko Bilkura honek aho batez behin-behineko berme gisa aurkeztutako 17.837,82 € eta behin-betiko % 5eko bermea osatu ahal izateko aurkeztutako 15.167,18 € itzultzea erabaki du BEIZAMA S.A.-ri.

V.- BERME ITZULKETA (J&E PATRIMONIALS S.L., LARREATEGIKO A.20.19.1 PARTZELA BESTERENTZEA.-

2023ko uztailaren 3an, Tokiko Gobernu Batzordeak Larreategiko A.20.19.1 partzela besterentzeko kontratua J&E PATRIMONIALS S.L. enpresari esleitu zion, eta beronek lizitazioan parte hartu ahal izateko 14.809,87 €-ko behin-behineko bermea aurkeztu zuen banku-transferentzia bidez. Ondoren, lehen sailkatua izanik eta kontratua esleitu ahal izateko, behin-betiko % 5eko bermea osatu ahal izateko, beste 9.873,25 €-ko bermea aurkeztu zuen, hau ere banku-transferentzia bidez.

Otsailaren 23an MOYUA HOMES S.L. sozietateak Udalari jakinarazi zion partzelaren titulartasuna eskuratu zuela. Beraz, J&E PATRIMONIALSen izenean zegoen hirigintza lizentziaren titulartasuna, A.20.19.1 Larreategi partzelan 28 etxebizitza eta garaje eraikitze-koa, MOYUAren alde aldatzeko eskaera egin zuten. Udalak MOYUARI 24.683,12 €-ko bermea eratu zezan eskatu zion, eta hala egin zuen 2024ko apirilaren 18an abal baten bidez.

Ondoren, 2024ko maiatzaren 16ko 2024/234 zenbakidun Alkatearen ebazpen bidez hirigintza baimen aldaketa eskaera onartzea erabaki zen eta MOYUA HOMES S.L.-ri eman zitzaizkion lursail horretako hirigintza baimen guztiak.

Honen aurrean, eta Udal Kontu-hartzaileak burutu duen txostenean oinarriturik, Osoko Bilkura honek aho batez berme gisa aurkeztutako 24.683,12 € itzultzea erabaki du J&E PATRIMONIALS enpresari.

VI.- BERDEGUNEAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN ESLEIPENA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2024ko ekainaren 27an hartutako akordio bidez, Lazkaoko Udalean dauden berdegune, parke, lorategi, pasealeku eta zuhaiztiak zaindu eta mantentze zerbitzua prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratatzailearen profilean jarri zen eta 2024ko uztailaren 1eko DO S 126/2024 Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean, 387680-2024 lizitazio zenbakiarekin, argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo proposamenak aurkeztu dira:

- UTE BROKER TXUKUN
- BRÓCOLI, S.L
- ELAI SERBITZUAK, S.L.



Aurkeztutako hiru proposamenak onartuak izan dira.

Balio-judizio baten menpeko irizpideen balorazioa egiteko dokumentazioa jasotzen duen 2. artxibo elektronikoa 2024ko abuztuaren 30ean, goizeko 11etan ireki ziren.

2. artxibo elektronikoa jasotzen duen dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaizkie proposamenei:

ENPRESA	Zerbitzuaren plan orokorra (23 puntu)	Baliabide materialak, instalazioak eta ingurumena (15 puntu)	Kontrol eta kalitate sistemak (2 puntu)	PUNTUAK (40 puntu)
UTE BROKER TXUKUN	18'75	12'75	2'00	33'50
BRÓCOLI, S.L.	16'35	7'23	1'00	24'58
ELAI SERBITZUAK, S.L.	20'75	14'25	2'00	37'00

2024ko irailaren 13an, eguerdiko 12etan, proposamen ekonomikoa duen 3. artxibo elektronikoa jendaurreko irekiera egin zen. 3. artxibo elektronikoa ireki aurretik 2. artxibo elektronikoa balorazioaren berri eman zen.

Enpresek aurkeztutako proposamen ekonomikoak honako hauek izan dira:

Enpresa	Urteko zenbatekoa	Puntuak (67 puntu)
UTE BROKER TXUKUN	162.735,13 € + BEZ	58'37
BRÓCOLI, S.L.	152.345,62 € + BEZ	59'00
ELAI SERBITZUAK, S.L.	166.008,70 € + BEZ	57'64

Eta ondorioz, lizitatzailerak lortutako puntuazioen sailkapena, handienetik txikienera, honako hau da:

Enpresa	2. artxibo elektronikoa (33 puntu)	3. artxibo elektronikoa (67 puntu)	GUZTIRA
UTE BROKER TXUKUN	33'50	58'37	91'87
BRÓCOLI, S.L.	24'58	59'00	83'58
ELAI SERBITZUAK, S.L.	37'00	57'64	94'64

ELAI SERBITZUAK, S.L.-k, lehen sailkatu gisa, esleipena egiteko baldintza pleguan finkatzen den dokumentazioa eta behin betiko fidantza jarrita du.



Honen aurrean, kontratazio mahaiak, ELAI SERBITZUAK, S.L. enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENA.- Lazkaoko Udalean dauden berdegune, parke, lorategi, pasealeku eta zuhaitzak zaindu eta mantentze zerbitzuaren esleipena ELAI SERBITZUAK, S.L. enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa, kontratuak iraungo duen 3 urterako, LAUREHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI MILA ETA HOGEITA SEI euro ETA HAMAR zentimo (498.026,10 €) gehi BEZari dagokion EHUN ETA LAU MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA BOST euro ETA BERROGEITA ZORTZI (104.585,48 €) zentimokoa da.

BIGARRENA.- Esleipenaren akordioa proposamena aurkeztu duten enpresa guztiei jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

VII.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN ZERBITZUAREN ESLEIPENA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2024ko uztailaren 18an hartutako akordio bidez, Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra idazteko zerbitzua prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratatzailearen profilean jarri zen eta 2024ko uztailaren 22ko DO S 141/2024 Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean, 437477-2024 lizitazio zenbakiarekin, argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo proposamena aurkeztu da:

- ESTUDIO K, S. COOP.

Aurkeztutako proposamena onartua izan da.

Balio-judizio baten menpeko irizpideen balorazioa egiteko dokumentazioa jasotzen duen 2. artxibo elektronikoa 2024ko irailaren 9an, eguerdiko 12etan ireki zen.

2. artxibo elektronikoak jasotzen duen dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zaizkio proposamenari:

ENPRESA	Memoria teknikoa (37 puntu)	Metodologia, antolaketa eta lan-programazioa (12 puntu)	PUNTUAK (49 puntu)
ESTUDIO K, S. COOP.	21'00	10'00	31'00

2024ko irailaren 25ean, eguerdiko 12etan, kontratazio-mahaiaren bilkura publikoan, balio-judizioei lotutako irizpideak aplikatuz proposamenak lortutako puntuazioa jakina-



razi zen, eta, ondoren, 3. artxibo elektronikoa ireki zen, automatikoki aplikatzeko irizpide-en arabera baloratu beharreko dokumentazioarekin.

Hau izan zen aurkeztutako enpresaurkeztutako eskaintza:

Enpresa	Proposamen ekonomikoa	Epe murrizketa
ESTUDIO K, S. COOP.	247.090,91 € + BEZ	4 hilabete

Eta ondorioz guztizko puntuazioa honako hau izan da:

Enpresa	Proposamen teknikoa (49 puntu)	Proposamen ekonomikoa (49 puntu)	Epe murrizketa (2 puntu)	GUZTIRA
ESTUDIO K, S. COOP.	31'00	49'00	2'00	82'00

ESTUDIO K, S. COOP.-k, lehen sailkatu gisa, esleipena egiteko baldintza pleguan finkatzen den dokumentazioa eta behin betiko fidantza jarrita du.

Honen aurrean, kontratazio mahaiak, ESTUDIO K, S. COOP. enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio bat datozela honekin. Gustatuko litzaiekeela enpresa honekin lehen kontaktua egiten denetik beraiek jakitun izatea, berarekin harremanetan izatea, gai hau oso inetersekoa dutelako bereziki. Eskertuko luketela kontuan hartzea.

Alkateak dio kontuan izango dutela.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENA.- Lazkaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra idazteko zerbitzuaren esleipena ESTUDIO K, S. COOP. enpresaren alde egitea. Esleipenaren prezioa BERREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI MILA ETA LAUROGEITA HAMAR euro ETA LAUROGEITA HAMAIIKA zentimo (247.090,91 €) gehi BEZari dagokion BERROGEITA HAMAIIKA MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI euro ETA BEDERATZI (51.889,09 €) zentimokoa da.

BIGARRENA.- Esleipenaren akordioa proposamena aurkeztu duten enpresa guztiei jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

VIII. KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 27, ETA 28. OBRA EGIAZTA-GIRIAK.-

Echaniz zinegotzia (EAJ-PNV) abstenitu egin da eta aretotik irten da.



Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberrria arkitekto teknikoak lan hauen obra egiaztagiriak egin dituzte.

Hogeita zazpigarren obra egiaztagiria BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMOKoa (257.659,78 €) da, gehi BEZ.

Hogeita zortzigarren obra egiaztagiria HOGEITA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA BERROGEITA HAMASEI ZENTIMOKoa (29.758,56 €) da, gehi BEZ.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman die ziurtagiri hauei.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela, beren ustez hau HAPOaren ondoren egin behar zelako.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), ziurtagiri hau onartu du.

IX.- LAZKAOMENDIKO OINEZKOENTZAKO PASEALEKUAREN PROIEKTUAREN AKATS ZUZENKETA.-

Etxaniz zinegotzia (EAJ-PNV) bueltatu da aretora.

2024ko maiatzaren 30ean Osoko Bilkurak Lazkaomendiko oinezkoentzako pasealekuaren proiektua onartu zuen, hau gauzatzeko behar diren lurzoruak eskuratu ahal izateko helburuarekin.

Udal teknikariak proiektu horretan akats batzuk atzeman dituzte, eta honako zuzenketak egitea proposatu dute:

- Memoriako "eragindako finken eta lurzatiek zerrenda" deritzon 4. puntuan, 03-093 zenbakidun katastroko partzelari dagokion gainazala 142,40 m²-koa da, ez 238,63 m²-koa hasiera batean onartu zen bezala. Bestalde, 03-089 zenbakidun katastroko partzelari dagokion gainazala 244,89 m²-koa da 148,66 m²-koa izan beharrean.
- Honenbestez, aurreko aldaketa honek c08 deritzon planoak, "Katastro planoak – Eragindako lursailak" bezala izendatua, ere aldatzen du eta aurreko puntuan zuzendutako gainazaletara egokitzen da.

Hau guztia ikusirik, Udalbatza osoak Lazkaomendiko oinezkoentzako pasealekuaren proiektuan atzemandako akats horiek zuzentzea onartu du aho batez.



X.- EAJ-PNV ETA EH BILDUREN AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA.-

Naldaiz (EAJ-PNV) eta Ormazabal (EH Bildu) zinegotzien artean, ondorengo testua irakurri dute:

"AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Azaroaren 25a emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta, Lazkaoko udalak gaitzespen irmoa adierazten du indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean, eta beste erakunde batzuekin, mugimendu feministarekin eta gizarte osoarekin, modu koordinatuan lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten du.

Aurten, arreta jarri nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria matxistaren diskurtso Liukatzailleetan, ultraeskuinak aurrera egiteko Europako eta munduko testuinguru batek bultzatuta jaiotzen baitira. Emakumeen eskubideetan izandako aurrerapenen aurreko erreakzio horrek, emakumeen eta haien inguruaren aurkako indarkeria ezereztu egiten du, eta oraindik haratago doa, lege-aldaketan biktimak gizonak direla defendatzen du berdintasunari eta indarkeria matxistari dagokienez.

Nahiz eta gero eta sentsibilizazio eta kontzientzia kolektibo handiagoa egon emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartearen alde -bai esparru legalean. eta politikoan, bai sozialean- gaur egungo joera neomatxista hazten ari da, eremu digitalen, bereziki. Manosfera deitu zaion eremuan, mezu misogino eta berdintasunaren aurkako ugari daude. Ondorioz, "indarkeriak ez duela generorik", "asmakizun ideologikoa" dela eta berdintasun politikak urrunegi iritsi direla bezalako mezuak jasotzen ari da gizarteak.

Diskurtso horien aurrean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren datuek gogorazten digute gure gizarteak egiturazko arazo bat duela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritzen dena. Negazionismoa arazo globala da, eta Nazio Batuek ere alarma piztu dute berdintasunaren aurkako mehatxu gero eta handiagoz eta misoginiaren normalizazioaz ohartarazteko, batik bat, hedabide digitaletan.

Hori guztia kontuan hartuta, Lazkaoko Udalean emakumeen aurkako indarkeria ezereztu nahi duen edozein diskurtsoren aurka agertzen gara, eta honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Gure herrian, euste-horma kolektiboa aktibatzea, emakumeen aurkako indarkeria ukatzen edo/eta ezereztzen duen edozein erreakzio matxistaren aurrean. Helburu hori lortzeko, tokiko eragile guztiekin lan egingo dugu, mezu ukatzaileak indargabetzeko eta tokiko bizitzan arazoaren larritasuna barneratzeko. Honelako sorre erraztuko dugu: partaidetza-mahaiak, zurrumurru misoginoei eta mezu ukatzaileei aurre egiteko tokiko sareak, komunikazio bateratuak, erantzun publiko eta kolektiboko protokoloak...



- Sentsibilizazio-neurriak hartzea, batez ere gizonezkoei zuzendutakoak, batik bat bitarteko digitalen bidez egunero jasotzen dituzten mezu misoginoak, emakumeen aurkako mezu bortitzak eta berdintasunaren aurkakoak desaktibatzeke.
- Gune formal eta informaletan, eskola-komunitateari zuzendutako hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuak indartzea, indarkeria matxistaren aurrean mezu eta jarra ukatzaile horiei aurre egiteko eta desaktibatzeke.
- Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko bideak erabiltzea, eskola-curriculumean jarrera ukatzaileetan eta jarrera matxisten normalizazioan esku-hartzea indartzeko.
- Berdinsareatik, eta beste sareetatik ere, udalerriek sarean ekiteko aukera indartzea, negazionismoari aktiboki aurre egiteko eta udalerriek indarkeria matxistaren aurka kolektiboki borrokatzeke egiten duten apustua berresteko.

Era berean, Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, gure herrian antolatuko diren ekita Idietan parte hartzera a niamatu nahi ditugu herritarrak, emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien aurrean gaitzespena modu aktiboan adierazteko, horien negazionismoa eta ezerezteke barne."

Hau ikusirik, Osoko Bilkurak aho batez adierazpena onartu du.

XI. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta hamar direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

